



2020ko HAUTESKUNDE AUTONOMIKOETAKO PORTAERA (2020ko uztaila) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gai nagusia uztailaren 12ko Hauteskunde Autonomikoetan EAEko biztanleek izandako hauteskunde portaera izan da.

Landa lana hauteskundeen ondoko egunetan egin zen, 2020ko uztailaren 13 eta 14ean.

INTERESA ETA HAUTESKUNDE-KANPAINAREN JARRAIPENA

Hauteskondeekiko interesa eta jarraipena txikitu egin da aurretikoekiko

Biztanleen %52k diote Euskadiko egungo egoera ekonomikoa hala-holakoa dela, %26k ona edo oso ona dela eta %19k txarra edo oso txarra dela. Balorazioa CISEk Espainian erregistratutakoa baino positiboagoa da, han %74k txarra edo oso txarra dela uste baitute.

Egoera politikoari buruzko iritzia positiboagoa da, %42k diote ona edo oso ona dela, %40k hala-holakoa dela eta %13k bakarrik txarra edo oso txarra dela.

Herritarren %53k diote interes handia edo nahikoa izan dutela uztailaren 12ko Hauteskunde Autonomikoekiko; interesa zertxobait txikiagoa da 2016 eta 2012ko Hauteskunde Autonomikoekin alderatuta (%56 eta %57 izan ziren, hurrenez hurren) eta baxuagoa Hauteskunde Orokorretako azken deialdiarekiko (%61).

Inkestatutakoen %57k gutxienez astean bitan edo hirutan jarraitu dute hauteskunde-kanpaina telebista bidez; %38k egunkarien bidez eta %30ek irratien bidez. Horrek 2019ko azken Hauteskunde Orokorrekiko jaitziera nabarmena adierazten du, orduan %66k, %49k eta %42k, hurrenez hurren, jarraitu baitzuten. Gainera, %45ek Internet eta sare sozialen bidez jarraitu dute kanpaina, gutxienez noizean behin.

Hauteskunde hauek hizketa gai izan dira, askotan edo noizean behin, familiarekin %53rentzat, lagunekin %43rentzat eta lankide edo ikaskideekin %26rentzat. Hau 2016ko Hauteskunde Autonomikoekin alderatuta, jaitziera esanguratsua da baita eta, are handiagoa, azken Hauteskunde Orokorrekiko. Izan ere, Autonomikoetan %60k, %51k eta %29k, hurrenez hurren, eta Orokorretan %67k, %59k eta %39k, hurrenez hurren, hori bera baitzioten.

BOTOARI BURUZKO IRITZIAK ETA HAUTESKUNDE PORTAERA

Herritarren gehiengoak hauteskunde aurretik erabakia zuen bere portaera eta bere erabakiarekin konforme dago

Botoa eskubidea dela, egikaritu daitekeena ala ez, uste dutenak %58 dira, 2015ean datuak batzen hasi zirenetik portzentajerik altuena. Betebeharra dela uste dutenak %41etik (2019ko azaroan) egungo %34ra gutxitu dira.

Herritarren %48k diote beti alderdi berari eman ohi diotela botoa (%65eraino igotzen da EAJren boto-emaileen artean eta %59raino EH Bilduko artean). Boto leialtasuna Euskadin askoz altuagoa da CISEk Espainian jasotakoa baino, bertan %18k diote beti alderdi berari eman ohi diotela botoa eta %56raino igotzen dira unearan arabera alderdi bati edo besteari eman ohi diotenak.

Boto-emaileen %83k kanpaina hasi aurretik erabakita zuten botoa ematera joango zirela, %8k kanpainen zehar erabaki zuten, %3k hausnarketa egunean eta %6k hauteskunde egunean bertan. Botoa ez emateko erabakia pixka bat beranduago hartu zen, %56k kanpaina hasi aurretik erabaki zuten, %16k kanpainen zehar, %6k hausnarketa egunean eta %18k hauteskunde egunean bertan.

Botoa ematera joan ziren herritarren %64k botoa konbentzimenduz eman zuten, hainbat zalantzekin %12k eta aukera txarretan onena zela uste zutelako %21ek. 64 urtez gorakoak, eta EAJ eta EH Bilduren boto-emaielen nabarmendu dira botoa konbentzimenduz eman zutenen artean (%77, %72 eta %70 dira, hurrenez hurren).

Botoa ematera joan zirenen %96 konforme daude emandako botoarekin, portzentaje hau %90tik gorakoa izan da 2011tik Euskadin egin ditugun hauteskunde ondoko inkestetan.

Botorik eman ez zutenen artean, %19k diote, emaitzak ikusita, nahiago zuketela botoa ematera joan izan balira. Portzentaje hau %24raino igotzen da Araban eta Gipuzkoan.

Bozkatzera ez joateko arrazoi nagusiak hainbat izan ziren: %23rentzat politikarekiko desengainu-sentimendua (%44 izan zen azken Hauteskunde Orokorretan), %20rentzako koronabirusa, inolako alderdi edo politikarik ez

zituela konbentzitzen %12rentzat, botoak ez duela ezertarako balio %9rentzat, hauteskunde horiek, zehazki, ez zitzaizkiola interesatzen %6rentzat eta %28rentzako beste arrazoi batzuk.

Gehiengo zabalak ezagutzen ditu emaitzak eta positibotzat ditu


Herritarren %91k dakite EAJ izan dela botorik gehien lortu dituenen, eta %72k diote Hauteskundearen emaitzak gehienbat positiboak direla, gehienbat negatiboak direla dioten %18aren aurrez aurre. Hauteskunde hauetako emaitzen balorazioa 2012ko eta 2016ko Autonomikoena baino positiboagoa izan da baita ere (%60 eta %68 izan ziren, hurrenez hurren).

ABSTENTZIOAREN AZTERKETA

Hauteskundeetako parte hartzeak behera egin du hainbat faktorek bat egin dutelako

Azken finean, azken hauteskunde hauetan izandako abstentzio handiaren faktore nagusien artean, 2005eko hauteskunde autonomikoetatik abstentzioak duen goranzko joeran beste urrats bat besterik ez dena, honako hauek daude:

- Interes gutxiago hauteskunde hauen inguruan: 2019ko hauteskunde orokorretako %61etik %53ra jaitsi da oraingoan interesa.
- Hauteskunde kanpainaren jarraipen txikiagoa: kanpainako asteetan informazio politiko eta elektoralaren kontsumoaren murriztea, bai telebista, egunkari eta irrati bidez, zein Internet edo sare sozialen bidez.
- Elkarrizketatuen inguruko artean gaiari gutxiago erreparatu zaio: hauteskundearen gaiari buruz familiarekin, lagunekin eta lankideekin hitz egiten emandako denborak behera egin du.
- Botoa herritarren "betebehartzat" jende gutxiagok hartzea: 2019ko azaroko %41etik egungo %34ra jaitsi da botoa eskubidea baino gehiago betebeharra dela uste dutenen kopurua.
- Botoa ez emateko erabakia beranduago hartu da: hauteskunde kanpainan zehar abstenitzea erabakitzen duten pertsonen ehunekoa azken hauteskunde orokorretako %32tik oraingo %40ra igo da.
- Koronabirusaren eragina: botoa ez ematearen funtsezko arrazoi bat (%20) koronabirusa da.



Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako Espainiako nazionalitatea duten herritarrei zuzendua, EAE osorako 886 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,36\%$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2020ko uztailaren 13 eta 14an egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_sociologikoak